

## **IA 24.000 LAGUN BATU DIRA HONDAKIN ORGANIKOAK KUDEATZEKO BILBORGANIK SISTEMA BERRIRA, EREDU JUSTUAGOA ETA JASANGARRIAGOA BULTZATZEN DUEN SISTEMARA**

- Inskripzio gehienak (10.576) aurrez aurre egin dira; 9.452, [www.bilborganik.eus](http://www.bilborganik.eus) webgunearen bidez; eta 3.805, mugikorreko aplikazioaren bidez.
- Inskripzioa beharrezkoa da 2026an hondakinen tasa berriaren osagai espezifikoan % 10eko hobaria lortzeko.

(Bilbon, 2025eko abenduaren 5ean)-. **Bilboko Udalak hondakin organikoa kudeatzeko Bilborganik sistema berriarekin bat egitera animatu ditu oraindik inskribatu ez diren herritarrek.** Sistema horrek eredu bidezkoagoa eta jasangarriagoa bultzatzen du, nahitaez bete beharreko Europako eta Estatuko araudiekin bat datorrena.

Ereduaren ezarpena nabarmen ari da aurrera egiten: **23.833 pertsonak eman dute izena jada, joan den urriaren 27an abiarazi zenetik.** Inskribatutako guztietatik, 10.576 Bilbao Clickeko makinetan aurrez aurre inskribatu dira, 9.452 webgune ofizialaren bidez eta 3.805 mugikorreko aplikazioaren bidez.

**Herritarrek hondakinen kudeaketa arduratsuagoarekin gero eta konpromiso irmoagoa dutelako ustean da Udala eta halaxe nabarmendu nahi izan du.** Gainera, bizilagunek sistemara batzeko hiru bide dituztela gogorarazi du:

- Bilborganik mugikorreko [aplikazioa](#);
- [www.bilborganik.eus](http://www.bilborganik.eus) webgunea;
- eta barrutietako hamabost udaltegitan egokitu diren guneak, Bilbao Kirolak-eko hamaika kiroldegia, Azkuna Zentroa, Zabalgune Eraikina eta San Agustin bulegoak; horietan nahikoa da NANA aurkeztea.

**2025eko abenduaren 31 baino lehen izena ematen duten pertsonen % 10eko hobaria jasoko dute ofizioz, 2026ko hondakin-tasaren zati espezifikoan.**

### **ABANTAILAK ETA JARRAIPEN PERTSONALIZATUA**

Izena eman ondoren, erabiltzaileek bi aukera dituzte: txartel fisiko bat – etxebizitza bakoitzeko bat – edo erregistratutako kideentzako txartel birtual bana. Txartel horiek aukera ematen dute edukiontzi marroian egindako ekarpenak erregistratu eta kontsultatzeko. **Hori egitea ezinbesteko baldintza da 2027an % 20ko hobari gehigarri bat eskuratzeko. Hobari hori 2026an gutxienez 36 astez erabili izana egiaztatzen dutenei emango zaie.**

Era berean, erabiltzaile berriek hondakin organikoa behar bezala bereizteko behar den materiala eskatu ahal izango dute (ontziak, poltsak...).

## **‘BILBO ZAINTEA ORGANIKOA DA’**

Udalak **‘Bilbo zaintzea organikoa da’** kanpaina bultzatzen jarraitzen du, izen-ematea errazteko eta hondakinen kudeaketa konpromiso kolektiboa delako ideia indartzeko. Eskutitzak eta esku-orriak bidaltzeaz gain, InfoBilbao berezi bat banatu da - 155.000 ale-eta hainbat informazio-euskarritan agertu da kanpaina.

## **SARE SOZIALAK:**

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)

## **CASI 24.000 PERSONAS SE HAN ADHERIDO YA A BILBORGANIK, EL NUEVO SISTEMA DE GESTIÓN DEL RESIDUO ORGÁNICO QUE IMPULSA UN MODELO MÁS JUSTO Y SOSTENIBLE**

- La mayoría de las inscripciones (10.576) se han realizado de forma presencial; 9.452 a través de la web [www.bilborganik.eus](http://www.bilborganik.eus); y 3.805 mediante la aplicación móvil.
- La inscripción es necesaria para acceder a la bonificación del 10 % en el componente específico de la nueva tasa de residuos en 2026.

(Bilbao, a 5 de diciembre de 2025).- El Ayuntamiento de Bilbao anima a las vecinas y vecinos que aún no se han inscrito a adherirse a Bilborganik, el nuevo sistema de gestión del residuo orgánico que impulsa un modelo más justo y sostenible, alineado con las normativas europeas y estatales de obligado cumplimiento.

La implantación del modelo está avanzando de forma importante: **23.833 personas ya se han inscrito desde el lanzamiento del mismo, el pasado 27 de octubre**. Del total de inscritos, 10.576 lo han hecho de manera presencial en las máquinas de Bilbao Click, 9.452 mediante la web oficial y 3.805 a través de la aplicación móvil.

**El Ayuntamiento destaca esta respuesta como un reflejo del compromiso creciente de la ciudadanía con una gestión más responsable de los residuos.** Además, recuerda que las y los vecinos tienen a su disposición tres vías para sumarse al sistema:

- La [aplicación móvil](#) Bilborganik;
- la web [www.bilborganik.eus](http://www.bilborganik.eus);
- y, los puntos presenciales habilitados en quince Centros Municipales de Distrito, los once polideportivos de Bilbao Kirolak, Azkuna Zentroa, el Edificio Ensanche y las oficinas de San Agustín, donde basta con presentar el DNI.

**Las personas que se inscriban antes del 31 de diciembre de 2025 recibirán de oficio una bonificación del 10 % en la parte específica de la tasa de residuos de 2026.**

### **VENTAJAS Y SEGUIMIENTO PERSONALIZADO**

Una vez inscritas, las personas usuarias podrán elegir entre una tarjeta física —una por domicilio— o tarjetas virtuales para cada miembro registrado. Estas tarjetas permiten registrar y consultar las aportaciones al contenedor marrón, **un requisito necesario para acceder en 2027 a una bonificación adicional del 20 %, que se otorgará a quienes acrediten al menos 36 semanas de uso durante 2026.**

Asimismo, las nuevas personas usuarias podrán solicitar el material necesario para la separación correcta del residuo orgánico (cubos, bolsas...).

## **‘CUIDAR BILBAO ES ORGÁNICO’**

**El Ayuntamiento continúa impulsando la campaña “Cuidar Bilbao es Orgánico”**, con el objetivo de facilitar la inscripción y reforzar la idea de que la gestión de los residuos es un compromiso colectivo. Además del envío de cartas y folletos, se ha distribuido un número especial de InfoBilbao con 155.000 ejemplares y presencia en múltiples soportes informativos.

## **REDES SOCIALES:**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)